

Irakasleon gida

2020-2021

EAEko hezkuntza publikoa

- Sarrera
- Kidegoak eta prozedurak
- Asteko lanaldia
- Ahaidetasun mailak
- Lizentziak, baimenak eta eszedentziak
- Gurasotasuna
- Lan istripuak
- Nomina
- Prest_Gara ikastaroak
- Ordezkoak
- Jubilazioak
- Covid-19
- Webgrafia eta dokumentuak
- ELAren aldarrikapenak

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

Sarrera

Kaixo, lankide:

Aurrean daukazun gida EAEko hezkuntza publikoan irakasle gisa lanean hasi berriak direnak eta hain berriak ez direnak buruan izanda atera dugu.

Askotan ulergaitzak eta nahasgarriak suertatzen zaizkigun prozedura administratibo, lizentzia, baimen eta langile moduan jakitea komeni zaizkigun hainbat gairen inguruan argi piska bat jartzeko asmoarekin egin dugu. Nolabait esateko, mapa txiki bat da.

Mapa txiki honekin oraindik ere galduta sentitzen bazara, badakizu non aurkitu gaitzakezun, gustura asko erantzungo ditugu zure zalantzak. Ondorengo kodean EAEko hezkuntza publikoko liberatu guztion kontaktu informazioa kontsultatu dezakezu (aukeratu eskualdea eta ondoren pantailaren behealdean eskualdearen izenean klikatu).



Euskal Herrian, 2021eko otsailaren 2an.

Hezkuntza sistemaren antolaketa

KIDEGOAK

MAISU-MAISTRAK

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleak (tutore zein espezialistak)

BIGARREN HEZKUNTZA

DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasleak

LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK

HIZKUNTZAK

Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak

ARTE PLASTIKOA ETA DISEINUA

IDarteko irakasleak

MUSIKA
Kontserbatorioetako irakasleak

ARTE DRAMATIKOA ETA DANTZA
Dantzertiko irakasleak

03

PROZEDURA ADMINISTRATIBO NAGUSIAK

Karrerako funtzionarioak (EPEn plaza atera eta behin-behineko edo behin-betiko destinoa dutenak)	Praktikaldiko funtzionarioak (EPEn plaza atera dutenak baina oraindik karrerako funtzionario izendatuak izan ez direnak)	Bitarteko funtzionarioak (EPEko plazarik ez dute. Ikasturte osoko lanpostuak egiten dituztenak)	Ordezkoak (EPEko plazarik ez dute. Ikasturte osokoak ez diren ordezkapen motzak egiten dituztenak)
<p><u>Atxikipenak</u> (urrian)</p> <p><u>Lekualdatze Lehiaketa</u> (azaroan)</p>	<p><u>Lekualdatze Lehiaketa</u> (azaroan)</p>	<p><u>Birbaremazioa</u> (martxoan)</p> <p><u>IKHA-COCU: esleipenak</u> (abuztuan)</p>	<p><u>Birbaremazioa</u> (martxoan)</p> <p><u>IKHA-COCU: esleipenak</u> (irailean)</p> <p><u>Ordezlagunea:</u> ikasturtean zehar egunero</p>

Asteko lanaldiaren antolaketa

Maisu-maistrak

Lanaldia	Irakastorduak (saio lektiboak: zaintzak eta atsedenaldiak barne)	Osagarriak (klastroak, ebaluazio/guraso bilerak, prestakuntza...)	Ordu kopurua guztira ikastetxeari eman beharrekoak	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	23	7	30	5
Bost seiren	20	5	25	5
Bi heren	15	5	20	5
Erdia	12	3	15	4
Herena	8	2	10	-

Bigarren Hezkuntza: DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Lanaldia	Ikastetxean egon beharreko orduak (lektiboak, zaintzak eta atsedenaldiak)	Irakastorduak (saio lektiboak)	Osagarriak (bilerak, jarduera osagarriak, planifikazioa, batzordeak, antolaketa...)	Ordu kopurua guztira ikastetxeari eman beharrekoak
Osoa	23	17- 18	7	30
Bost seiren	18 / 19* (LH)	14 -15	7 / 6* (LH)	25
Bi heren	15	11 - 12	5	20
Erdia	11	8 - 9	4	15
Herena	7	6 - 7	3	10

Lanbide Heziketan, batez ere 2. mailako orduak ematerakoan, ikasleak lantokiko praktikak egitera joan arte astean 18 ordu lektibo baino gehiago ematea egokitzen da askotan (ikasturteko aldi jakin batzuetan asteko 25 curriculum-ordu ere izan daitezke). Gogoan izan ordezkioa bazara eta 18 ordutik gora sartutako orduak konpentsatzerik ez badago (titularra ikasleak praktiketara doazenean bueltatuko delako adibidez) bi ordezeko izendatu daitezkeela. Horietako lehena lanaldi osoan egongo litzateke eta bigarrena aldiz heren batekin.

Hizkuntza Eskola Ofizialak

Lanaldia	Ikastetxean egon beharreko orduak	Osagarriak (bilerak, jarduera osagarriak, planifikazioa, batzordeak, antolaketa...)	Ordu kopurua guztira ikastetxeari eman beharrekoak
Osoa	23	7	30
Bost seiren	18	7	25
Bi heren	15	5	20
Erdia	11	4	15
Herena	7	3	10

Arte Plastikoa eta Diseinua - Musika - Arte dramatikoa eta dantza

Lanaldia	Ikastetxean egon beharreko orduak	Osagarriak (bilerak, jarduera osagarriak, planifikazioa, batzordeak, antolaketa...)	Ordu kopurua guztira ikastetxeari eman beharrekoak
Osoa	23	7	30
Bost seiren	19	6	25
Bi heren	15	5	20
Erdia	11	4	15
Herena	8	2	10

KIDEGO GUZTIETARAKO OHARRA: lanaldi mota guztietan lanaldi osoari dagokiona puntuatzen da. (60 egun = puntu 1)

Ahaidetasun mailak

05

LANGILEA

1. MAILAKOAK

Bikotekidea Seme-alabak Gurasoak
Suhia / Erraina Aitaginarreba / Amaginarreba

2. MAILAKOAK

Neba-arrebak Koinatuak Aiton-amonak Bilobak

3. MAILAKOAK

Osaba-izebak Ilobak Birraitonak Birlobak

4. MAILAKOAK

Lehengusu-lehengusinak Osaba-izeba zaharrak

05

Lizentziak, baimenak eta eszedentziak

(185/2010 Dekretuan, [Euskal Funtzio Publikoaren Legean](#) eta [Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan](#) oinarrituta)

Bakoitzaren xehetasunak irakurtzeko, klikatu [hemen](#). Eskaerak egiteko: dagokion eskaera orria (artikuluaren gainean klikatu eta deskargatu) eta bertan ezarritako dokumentazioa delegaritzara postaz/emailez bidali; edo bestela, eskaera EIZUtik tramitatu.

LIZENTZIAK

Edozein langilek eskatu ditzake, eta eskubidea direnez, ezin da ukatu horiek disfrutatzeko aukera. Lizentzia guztietan ordainsariak osorik jasotzen dira, eta kotizatu egiten da ere.

39. Istripu edo gaixotasuna	Alta medikoa jaso arte (beti ere kontratua bukatu ez bada). 18. hilabetetik aurrera baliaiezintasuna eskatu behar da soldata osoa kobratzeko. Disfrutatu gabeko oporren jarraibideak kontsultatu.									
<u>40. Haurdunaldia, erditzea, edoskitzea, adopzioa edo harrera</u>	18 aste (6 nahitaezkoak + 10 borondatezkoa + GKEk 2 hobetutakoak). Erditze anizkoitza edo ezgaitua bada beste 2 aste seme-alaba bakoitzeko. Atzerriko adopzioan 2 hileko baimena oinarrizko ordainsariarekin (40.2 art.).									
<u>40.5. Edoskitzea</u>	Egunero ordu bat haurrak urtebete bete arte: - Metatuta (6 ordu/eguneko): 24 lanegun gutxi gora behera. - Orduka: egunero ordu bat edo ordu erdiko bi zati.									
<u>41. Aitatasuna, gurasotasuna</u>	18 aste (6 nahitaezkoak + 10 borondatezkoa + 2 GKEk hobetutakoak).									
<u>42. Norberaren ezkontzagarik edo izatezko bikotea</u>	20 egun natural, ezkontza eguna barne.									
<u>42.3. Senide baten ezkontzagarik</u>	Ahaidetasuneko 2. mailara arteko senideengatik, egun bat. (2 egun natural gehiago 150km-ko distantzia pasaz gero).									
<u>43. Senideen gaixotasun larri edo heriotzagarik</u>	<table><thead><tr><th></th><th>Gaixotasuna</th><th>Heriotza</th></tr></thead><tbody><tr><td>Bikotekidea/seme-alabengatik</td><td>5 lanegun</td><td>5 lanegun</td></tr><tr><td>2. mailara arteko senideengatik (edo ahaidetasun urrunagoa elkar bizi badira)</td><td>2 lanegun</td><td>3 lanegun</td></tr></tbody></table> <p>(2 egun natural gehiago 150km-ko distantzia pasaz gero)</p>		Gaixotasuna	Heriotza	Bikotekidea/seme-alabengatik	5 lanegun	5 lanegun	2. mailara arteko senideengatik (edo ahaidetasun urrunagoa elkar bizi badira)	2 lanegun	3 lanegun
	Gaixotasuna	Heriotza								
Bikotekidea/seme-alabengatik	5 lanegun	5 lanegun								
2. mailara arteko senideengatik (edo ahaidetasun urrunagoa elkar bizi badira)	2 lanegun	3 lanegun								
<u>45. Nahitaezko betebeharrak betetzeko</u>	Behar adina denbora baldin eta lanorduetatik kanpo egiterik ez badago.									
<u>46. Ohiko etxebizitza aldatzeko lizentzia</u>	2 lanegun (erroldatu eta 15 eguneko epean hartzeko).									
<u>47. Ordezkaritza sindikala edo langile-ordezkaritza</u>	Indarrean dagoen legediaren arabera.									
<u>48. Emakume funtzionarioaren aurkako genero-indarkeriaren biktima izateagarik</u>	Gizarte zerbitzuek zehaztutako denbora. Lanaldia murrizteko aukera (ordainsaria hein berean) edota ordutegia moldatzeko aukera.									

BAIMENAK

Baimenak disfrutatu ahal izateko eskaera egin eta horien onarpena jasotzea beharrezkoa da. Baimenak kotizatu egiten dira, ezezkia jartzen duen kasu bakarrean izan ezik.

K (Karrerako funtzionarioa); P (Praktikaldiko funtzionarioa); B (Bitarteko funtzionarioa) ; O (Ordezkoa)

*(urtebetean lan egin badute etenik gabe)

✓ (ordainsariak osorik jasotzen dira); % (ordainsariak proportzioan jasotzen dira); X (ez da ordainsaririk jasotzen)

44. Lehenengo mailako senideen oso gaixotasun larriagatik lanaldia murriztea (edo ahaidetasun urrunagoa ere, elkarrekin biziz gero)	Hilabete batez, lanaldia herena edo erdia murriztea.	KPBO	✓
49. Adingabeak, ezgaituak edo 2. mailara arteko senideak zaintzeko (edo ahaidetasun urrunagoa ere, elkarrekin biziz gero)	Lanaldia herena edo erdia murriztea. (Adingabekoen kasuan, 12 urtetik beherakoak izan behar dira).	KPBO	%
49.e. Minbizia edo gaixotasun grabea duten adingabeak zaintzeko (7/2007 Legea)	Lanaldia gutxienez erdia murriztea (18 urte beheragoko haurragatik).	KPBO	✓
50. Gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten senitartekoak zaintzeko (50 orduko baimena) (ahaidetasun eko 2. mailara artekoa edo urrunagoa, elkarrekin biziz gero)	50 ordu arte ikasturte bakoitzeko. Oro har, egunean gehienez 2 ordukoa (lanaren sarreran edo irteeretan).	KPBO	✓
51. Lanpostuarekin erlazioatutako ikasketak egiteko	Baimen hau ematea hautazkoa da, kopurua mugatua baita.	K	✓
52. Bestelako ikasketak egiteko	Ikasturte luzaezin bat .	K	X
53. Azterketetara joateko baimena	Egun bat deialdiko. (2 egun 150 km-ra baino gehiago bada).	KPBO	✓
54. EAEko Administrazio Orokorrean sartzeko probetan parte hartzekoa	Behar adina denbora.	KP	✓
55. Medikuaren kontsulta, tratamendu eta azterketetara joateko.	Beharrezkoa den denbora. Erditzea prestatzeko astean 4 ordu arte. (Guztiak lanordutik at joateko kontsulta ordurik eduki ezean).	KPBO	✓
56. Zientzia, lanbide, elkarte eta sindikatu izaerako ekitaldietara joateko	5 egun gehienez.	KPB	✓
57. Hautapenezko karguaren jardunak betetzeko	Behar adina denbora, urteko lanaldiaren %10a pasa gabe. Lanaldia herena/erdia murriztea. Bostena murriztea.	KPB	% ✓
58. Norberaren eginkizunak	Gehienez 4 hilabete 2 urteko epean. GKE-en bitartez atzerrira joateko bada, gehienez urtebete metatuta. (Kasu honetan, ez da kotizatzen).	KPB*	X
59. Ordaindu gabeko baimena	5 urtetik behin, ikasturte osoa edo 6 hilabete. (abuztua-urtarrila / otsaila-uztaila).	K	X
60. Partzialki ordaindutako baimena (urte sabatikoa)	4 ikasturtez lanean eta bostgarrenean urte sabatikoa. (Bost urteetako bakoitzean ordainsarien %84a jasotzen da).	K	%

ESZEDENTZIAK ETA ZERBITZU BEREZIAK

Eszedentzia eta zerbitzu bereziak eskubidea direnez, ezin da horiek disfrutatzeko aukera ukatu. Ordaindu gabeak dira guztiak, baina kotizatu egiten dira, ezezkoa jartzen duen bi kasuetan izan ezik.

Funtzionarioentzat:

<u>61.1.b Norberaren interesagatiko borondatezko eszedentzia</u>	<p>Gutxienez 2 urtez egon behar da eszedentzian. Ez da lanpostua gordetzen. Eskatu aurreko 5 urteetan Administrazio Publikoren batean zerbitzuak eginda izatea beharrezkoa da.</p> <p>(Ez da kotizatzen, eta ez da konputagarria hiru urtekoen eta eskubide pasiboen ondorioetarako).</p>
<u>62. Seme-alabak zaintzeko eszedentzia</u>	<p>Gehienez 3 urteko iraupena izango du, seme-alaba bakoitzeko. Lanpostua gordetzen da eszedentziak iraun bitartean. Hau bukatuta, 30 eguneko epea dago zerbitzu aktibora itzultzeko eskaera egiteko.</p> <p>(Konputagarria da hiru urtekoen eta eskubide pasiboen ondorioetarako).</p>
<u>89.4 Senideak zaintzeko eszedentzia</u>	<p>Gehienez 3 urteko iraupena izango du, ahaidetasuneko 2. mailara arteko senide bakoitzeko. Lanpostua gutxienez 2 urtez gordetzen da.</p> <p>(Konputagarria da hiru urtekoen eta eskubide pasiboen ondorioetarako).</p>
<u>61.1.a Beste kidego batera pasatzeko eszedentzia</u>	<p>Edozein Administrazio Publikotako beste kidego batean edo eskalan jarduneko zerbitzuan egoteke. Hau bukatuta, 30 eguneko epea dago zerbitzu aktibora itzultzeko eskaera egiteko.</p> <p>(Ez da kotizatzen jatorrizko kidegoan, jardunean dagoen kidegoan baizik. Konputagarria da hiru urtekoen eta eskubide pasiboen ondorioetarako).</p>
<u>64. Zerbitzu bereziak</u>	<p>Nazioarteko erakundeetako, diputatu, senatore, Eusko Legebiltzarreko, Batzar Nagusietako, etab. kide publikoa izateko. Lanpostua gordetzen da. Hau bukatuta, 30 eguneko epea dago zerbitzu aktibora itzultzeko eskaera egiteko.</p> <p>(Konputagarria da hiru urtekoen eta eskubide pasiboen ondorioetarako).</p>

Bitarteko eta ordezkioentzat:

62. Zerbitzuak aldi baterako etetea seme-alaba adingabea zaintzeko

Gehienez 3 urteko iraupena izango du, seme-alaba bakoitzeko. Lanpostua gordetzen da onuraduna ikasturte osoko lanpostu hutsa betetzen ari bada. Zerbitzu aktibora itzultzeko gutxienez 20 egun lehenago adierazi behar da.

(Konputagarria birbaremazioan. Zerbitzuak benetan ematen ez direnez, ez da kotizatzen eta ez da kontuan hartzen antzinasunerako ezta EPEko merezimenduen baremorako).

Gurasotasuna

Azken urteotan aldaketa nabariak eman direnez, jarraian laburbilduta daude **2021etik aurrera gurasotasunari dagokionez indarrean dauden alderdi garrantzitsuenak.**



	Nahitaezko zatia	Borondatezko zatia		Hobetutako zatia
Zenbat aste	6	10		2
Baldintzak	Haurra jaio ondoren derrigorrez hartu behar dira. (Adopzio/harreratan erabaki judizialaren arabera)	<u>Jarraian</u> Ez dago baldintza berezirik.	<u>Etenekin</u> Bete behar dira: - 2 gurasoak (baleude) lanean egon behar dira. - Adopzio, zaintza eta harreratan haurrak 12 hilabete baino gutxiago izan behar ditu. - Aste osoak hartu behar dira.	Borondatezko zatiaren azken astearen ondoren hartu behar da.

- **Aldi baterako ezintasuna (bajak):** ez dira akumulatzen eta egunak galtzen dira.

- **Ordezkoentzat oharrak:**

Izendapen egunetik aurrera lizentzia disfrutatzeko aukera izango da.

Lan harremana moztean hurrengo lan harremanarekin batera jarraituko da lizentziaz disfrutatzen.

Edoskitzea


Bi gurasoek disfrutatu dezakete lizentzia hau. Egunean ordu beteko lizentzia dago, umeak urte bat bete arte. Bi modutara disfrutatu daitezke:

METATUA	METATU GABE
18 asteko lizentzia bukatzean hartu behar da.	Lizentziaren nahitaezko zatiaren ondoren edo lizentzia osoa amaitu ondoren disfrutatu daitezke.
Umeak urtebete eduki arteko lan orduen kalkulua egiten da. Lanaldi osoan, gutxi gora behera etenik gabeko 24 lanegun izango dira. (lanegun bat = 6 ordu).	Ume bakoitzeko egunean ordu bat.
Lanaldi murriztua izanez gero, lizentziaren egun kopurua handiagoa da, eguneko lan ordu kopurua gutxiagoa delako.	Ordu horiek ordu erdiko 2 zatitan egin daitezke, egunaren hasiera/bukaeratan.

- **Ordezkoentzat oharrak:** 6. astetik aurrera lana esleitzen denean fiktizioki puntuatzen da. Metatu gabe hartu beharko dira, egunean ordu bete.


Lan istripuak: zer egin?

Ondorengo jarraibideak Hezkuntza Sailak argitaratutakoak dira, Langileak Kudeatzeko zuzendaritza: Lan Arriskuen Prebentzioa.



- Ohizko jakinarazpena: Bai Hezkuntzako langileek bai beste enpresa edota administrazioetako langileek jasatzen dituzten bajadun eta bajaran gabeko lan istripuentzat, Hezkuntza Saileko langileek jakinarazpena: LAPZ eta Ordezkaritza. Beste langile batzuk: LAPZ besterik ez.
- Premiazko komunikazioa: Istripua jasandakoa hiltzen denean edo lan istripua lau langile edo gehiagok jasan dutenean nahiz eta Hezkuntza Sailekoak ez izan 24 ordutan komunikatu: a-betegon@euskadireus, remiazko komunikazioa egiteaz aparte ohizko jakinarazpena ere egin behar da.
- Formularioa betetzean zailtzaren bat izanez gero: 688670577 edo huis098@euskadireus. Laguntza teknikoa behar izatekotan: 901101132 edo CAU09@hezkuntza.net

Nomina



Nominaren kontzeptu bakoitzaren ondoan **kode bat agertzen da**, eta kode horiek ulertzea oso garrantzitsua da, bai nomina ulertzeko bai akatsak identifikatzeko.

Denok jasotzen duguna

- Soldata (1000), destino osagarria (2004), berariazko osagarria (2103) eta CE Kapitalizazioa (2108).
- Kode hauei dagozkien kantitateak desberdinak dira kidego bakoitzeko, beraz langile bakoitzak bere kidegoari zein kantitate dagokion begiratu behar du (ikus hurrengo orriko taula).

Antzina tasuna

- **Hirurtekoak (antzinatasuna funtzio publikoan: hezkuntza, osakidetza, etab. metatua).** Betetzen diren hiru urte (1080 egun) bakoitzeko kobratzen dira. Kodeak 1020 eta 1027 dira.
- **Seiurtekoak (antzinatasuna araututako hezkuntza publikoan).** Betetzen diren sei urteengatik kobratzen da. Kodeak dira: 2130 (1.seiurtekoa), 2135 (4.seiurtekoa) eta 2140 (5.seiurtekoa).
- Bata ala biak aldi berean kobra daitezke, langile bakoitzaren kasuaren arabera.
Adibidez: Osakidetzan 6 urtez eta eskola batean urte bat lanean egon den langileak bi hirurteko kobratuko ditu, baina sei urtekorik ez oraindik.

Ardurak

- Tutorea, ziklo koordinatzailea, zuzendaria etab. Guztiek kode bera dute (2145).
- Ardura bat baino gehiago izanez gero, kantitate handiena duena baino ez da kobratzen.

Maisu-Maistren gehigarriak

- Langile batzuk, maisu-maistren kidegokoak diren arren, DBHan (2640) edo EPAn (2146) egiten dutelana, eta destino hori izateagatik pizgarri bat jasotzen dute.

Kontzeptu hauek **guztiak automatikoki kobratzen dira**, delegaritzan eskaerarik egin behar izan gabe, **ondorengo kasuetan izan ezik**: hirurtekoak (lan egunak beste erkidego batean ala beste erakunde publiko batean egin badira, hala nola, haurreskolak) eta ardurak (ordezkoek bakarrik, karguan hilabete egon eta gero).

Aparteko ordainsarrietan kobratzen dena kalkulatzeko ondorengo kontutan hartu behar da:

- 1027 kodea ez da kobratzen.
- 1000 eta 1020 kodeak: maisu-maistra guztiek eta LHko irakasle teknikoek %61 kobratzen dute. Bigarren Hezkuntzakoek %72a.
- Gainontzeko kodeak berdin kobratzen dira.

Atxikipenenak (soldatik deskontatzen diren kontzeptuak):

- 350 Langilea, kontingentzia arrunta: %4,70. Gizarte Segurantzza eta osasun zerbitzuei ekarpena.
- 370 Trab. desempleo: %1,55. Langabezirako ekarpena (karrerako funtzionarioek ez daukate).
- 380 Langilea, lanbide heziketa: %0,1.
- 401 PFGZ/IRPF: automatikoki ehuneko bat ezartzen da, baina langileak ehuneko hori molda dezake (EIZUtik edo delegaritzan eskaera idatzia eginez). Atxikipen taulak: [Araba – Bizkaia - Gipuzkoa](#)

Kantitateak hilabeteko (2020ra eguneratuak)

Kontutan izan behar da 2021ean %0,9ko igoera aurreikusita dagoela, beraz hori onartzen bada, kantitateak zertxobait gehiago izango dira.

Kodea	Maisu-maistrak	Maisu-maistrak (DBH edo EPAn lanean)	Lanbide Heziketako irakasle teknikoak	Bigarren Hezkuntza (DBH, Batx, LH, HEO...)
1000	1040,69		1203,56	
2004	608,35	763,54		
2103	611,03	809,09	691,76	
2108	274,79			
1020	37,78		46,32	
1027	7,96		9,08	
2130	83,98			
2135	50,10			
2140	41,52			
2145	Tutorea: 61,89 Ziklo koordinatzailea: 56,24 Mintegi burua: 55,77 (Lanbide Heziketako teknikoak) / 80,81 (Bigarren Hezkuntza) Ikasketa burua: 181,36 (Maisu-maistrak) / 253,26 (LH teknikoak eta BH) Zuzendaria (kidegoa eta zentroaren ikasgela kopuruaren arabera)			
2640	155,19			
2146	69,54			

Urteko irabaziak (aparteko soldata barne; antzinasuna/pizgarriak kontutan hartu gabe)

Maisu-maistrak	Maisu-maistrak (DBH edo EPAn lanean)	Lanbide Heziketako irakasle teknikoak	Bigarren Hezkuntza (DBH, Batx, LH, HEO...)
34.924,66€		39.870,15€	40.149,38€

Itzarri

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea (BGAE/EPVS) da Itzarri, hau da, Euskadiko Administrazio Orokorreko langileok dugun pentsio plan baten modukoa. Soldataren proportzio baten ekarpena egiten digute hilabetero. Jubilazioan, Ezintasun Iraunkorrean, heriotzan edo iraupen luzeko langabezian eskura dezakegu ordurarte metatutakoa. 2010a arte ekarpen hori %3a zen, 2012-2016 bitarte %0a, eta 2020an %1,5an baino ez dago.

Prest_Gara ikastaroak

Hezkuntza Sailaren baitan, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko zein itunpekoetako irakasleei zuzendutako **prestakuntza ikastaroak dira**. Hezkuntzako web-orrian jasotzen dira deialdia eta prozedurari buruzko bestelako dokumentuak; **ikusteko klikatu [hemen](#)**.

Epeak

1. Eskaera epea: maiatza/ekaina
(uztailatik urrira hasten diren ikastaroentzat)

2. Eskaera epea: abuztua/iraila
(azarotik ekainera hasten diren ikastaroentzat)

Eskaerak

Telematikoki (Irakaslegunean).
Administrazio-izapideak atalean, "Prest_Gara".

Nahi adina ikastarotan izena emateko aukera dago, horien arteko lehentasun-hurrenkera zehaztuz.

Plazak esleitzeko lehentasun-ordena

1. Ikastetxe publiko zein itunpekotan lanean eta jardunean dauden irakasleak.

2. Berritzeguneko langileak, Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak, Ingurumenarekiko Ikasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako ikastegietakoak, Itsuen Baliabidetegietakoak, Irale Ikastegietakoak eta HEOtakoak.

3. Lanbide Heziketako langileak.

Baremoa (10 puntu gehienez)

Karrerako funtzionarioek eta lan-legepeko kontratu mugagabea dutenek, ikastetxe publiko zein pribatuetan. 4 PUNTU

Bitarteko funtzionarioa edo lan-legepeko kontratu mugatua dutenek. 2 PUNTU

Ezabatutako unitateetako irakasleak. PUNTU 1

Hezkuntzan emandako zerbitzuak:
0,5 puntu/urteko; 0,042 puntu/hileko;
0,0014 puntu/eguneko.
GEHIENEZ 5 PUNTU

- **Hezkuntza Bereziko** lan-legepeko langileek Hezkuntza premia bereziei buruzko ikastarotan har dezakete parte.

- **Haur Hezkuntzan** (0-3 urteko zikloan), ikastetxe publiko zein pribatu baimendutan lan egiten duten langileek ziklo horri buruzko ikastarotan parte har dezakete.

Justifikatu gabe **ikastaroari uko egiten bazaio edo ikastaro saioretan huts egiten bada**, eskatzaileak aukera izango du hurrengo bi deialditan parte hartzeko, baina 0 puntu izango ditu aukeraketa prozeduran.

Ordezkoak: plataforma eta zerrenden hurrenkera

Ordezlagunea

- Partehartzailearen **datu pertsonalak sartu/aldatzeko** (izen-abizenak, helbidea, mugikorra, etab.)
- Ordezkatzeko dauden **lanpostuak eskatzeko** (egunero, astelehenetik ostiralera)
 - 09:30 - 13:00 ⇒ egoera laborala aldatu (lan egiteko moduan (disponible) / lanean / uko egitea)
 - 13:30 - 15:30 ⇒ eskaerak egin
 - 16:30tan ⇒ esleipenak ikusi (gehienetan, lanpostua esleituz gero, email/ SMS- a iristen zaio partehartzaileari)
- Zerrenden **hurrenkera kontsultatzeko** (edozein momentutan). Hau ere Irakaslegunetik kontsultatu daiteke (Administrazio-izapideak ☒ Ordezkapen izangaien birbaremazioa ☒ Zerrendako hurrenkera)

Zerrenden hurrenkera Ordezlagunean kontsultatzean, honelako taula bat azaltzen da, **adibidez**:

Nire zerrendak

Maila	Espezialitatea/Ikasgaia	Deialdia	
Irakaskuntza ertainak (20)	Geografia eta Historia (0124)	A	Kontsultatu xehetasunak (hemen klikatu behar da)

IRAKASKUNTZA ERTAINAK – GEOGRAFIA ETA HISTORIA (0124)

Gipuzkoa

Ordena - zenbakia: 720

Aurreko pertsonak, lanaldiaren eta hizkuntza-eskakizunaren arabera

		PL0	PL1	PL2
(Bai)	Osoa eta murriztua	4	10	41
(Ez)	Osoa bakarrik	2	6	17
(R bakarrik)	Murriztua bakarrik	0	2	8
	Guztira	6	18	66

PL= Perfil Lingüístico / Euskaraz: Hizkuntza Eskakizuna (HE)

(*HE2koek beste hizkuntz eskakizunetan ordezkapenak egin ditzakete)

Nola interpretatzen dira zenbaki horiek?

Partehartzaileak, aurretik duen jende kopurua kalkulatzeko, bere lanaldi motari erreparatu behar dio. Adibide honi jarraituz:

- Partehartzailea **bi lanaldi motetan** egongo balitz, 90 pertsona izango lituzke aurretik (55+25+10)
- Partehartzailea **lanaldi murriztuan bakarrik** egongo balitz, 65 pertsona izango lituzke aurretik (Bai+ R bakarrik, hau da, 55+10)
- Partehartzailea **lanaldi osoan bakarrik** egongo balitz, 80 pertsona izango lituzke aurretik (Bai + Ez, hau da, 55 + 25)

Jubilazioak

Irakasleak duen erregimenaren arabera, jubilazioak xehetasun bereizgarriak ditu. Laburbilduta:


	Gizarte Segurantza	Lan legepekoa	MUFACE
Jubilazio data		(Ikus beheko taula)	65 urte
Aurrejubilazioa		2 urte lehenago (hiru hilabete bakoitzeko %2 arteko penalizazioa dauka)	60 urte
Berezitasunak	-	<p>Errelebu kontratua (ikus beheko taula): Lana %50 eta ordainsaria %100 Eskaerak 2 hilabete lehenago egin behar dira</p> <p>2 mota: - <u>Urtean urtekoa</u>: urtero lan egin (85 egun inguru) - <u>Metatua</u>: jubilatu arte geratzen diren urtetako lan egunak pilatu.</p>	-

Datorren urteetan bilakaera hau egongo da kotizatutako urteen eta adinaren arteko erlazioan:

	Jubilazio arrunta		Errelebu kontratua	
	Lan egindako urteak	Adina	Lan egindako urteak	Adina
2021	37 urte + 3 hilabete	65 urte	35 urte + 3 hilabete	62 urte
	37 urte + 3 hilabete baino -	66 urte	35 urte + 3 hilabete baino -	63 urte
2022	37 urte + 6 hilabete	65 urte	35 urte + 6 hilabete	62 urte + 2 hilabete
	37 urte + 6 hilabete baino -	66 urte + 2 hilabete	35 urte + 6 hilabete baino -	63 urte + 4 hilabete
2023	37 urte + 9 hilabete	65 urte	35 urte + 9 hilabete	62 urte + 4 hilabete
	37 urte + 9 hilabete baino -	66 urte + 4 hilabete	35 urte + 9 hilabete baino -	63 urte + 8 hilabete
2024	38 urte	65 urte	36 urte	62 urte + 6 hilabete
	38 urte baino -	66 urte + 6 hilabete	36 urte baino -	64 urte
2025	38 urte + 3 hilabete	65 urte	36 urte + 3 hilabete	62 urte + 8 hilabete
	38 urte + 3 hilabete baino -	66 urte + 8 hilabete	36 urte + 3 hilabete baino -	64 urte + 2 hilabete
2026	38 urte + 3 hilabete	65 urte	36 urte + 3 hilabete	62 urte + 10 hilabete
	38 urte + 3 hilabete baino -	66 urte + 10 hilabete	36 urte + 3 hilabete baino -	64 urte + 8 hilabete
2027	38 urte + 6 hilabete	65 urte	36 urte + 6 hilabete	63 urte
	38 urte + 6 hilabete baino -	67 urte	36 urte + 6 hilabete baino -	65 urte

Covid-19

COVID-19ak goitik behera baldintzatu ditu 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteak. Egoera egunez egun aldatzen denez, zenbaitetan zaila suertatu daiteke momentuko egoeraren baldintzak zeintzuk diren jakitea. Horregatik, erreferentziarik ofizial bakarra [Hezkuntza Saileko web-orrialdea](#) da. Bertan, koronabirusari buruzko informazioa eguneratuta dago (COVID gidak, neurriak, oharrak, etab).



Bestalde, Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren web-orriaren atalean, [gida](#) bat argitaratuta dago. (5. puntuan norberaren ebaluazio medikua eskatzeko inprimakia dago).

Tamalez administrazioa berandu eta motz ibili da. Honen lekuko ELAtik [irabazitako sententzia](#).

Web-orri eta eta dokumentu esanguratsuak

Web-orri eta dokumentuak ikusi eta deskargatu ahal izateko, **klikatu horien gainean.**

WEB-ORRIAK	DOKUMENTUAK (aginduak, ebazpenak, etab.)
Hezkuntzako web-orria	Irakasle funtzionarioen (eta ordezkoen) lan baldintzak arautzen dituen akordioa (185/2010 dekretua)
Irakaslegunea (zaharra)	Euskal Funtzio Publikoaren Legea
Irakaslegunea (berria)	Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua
Ordezlagunea (ordezkoek euren lan egoera aldatzeko eta esleipenetan parte hartzeko plataforma)	Ordezkoen zerrendak kudeatzeko araudia (2012ko abuztuaren 27ko agindua)
	IKHA-COCU prozesuaren araudia (2011ko uztailaren 15eko agindua)
	Ikasturte hasierako ebazpenak (asteko lanaldia, etab. ezartzen dituenak)

ELAren aldarrikapenak

ELA erabat kritikoa da Eusko Jaurlaritzan egondako gobernu desberdinek azken urte luze hauetan garatzen ari diren hezkuntza politikekin:

- Hezkuntza inbertsio eskasa (Europar Batasuneko txikienetakoa)
- Etengabeko aurrekontu eta lanpostu murrizketak
- Ratioen gorakadak
- Lanpostu estrukturalen zerrenda ofizialak dituen gabeziak
- Etab. luzebat

Egoera oso larri eta konplexu honen atzean, besteak beste, irakasleok pairatzen dugun behin-behinekotasun maila izugarria dago. Honen aurrean, Eusko Jaurlaritzak planteatzen dituen EPE deialdiek, gaur egun diren modukoak izanda, erretiroak betetzeko eragina izango dute apenas, behin-behinekotasun maila bere horretan mantenduz. Bestalde, 2020ko abenduan Gobernu Kontseiluan onartutako xedapen gehigarriak ([Kidego eta Eskalen Lege proiektuan txertatutakoak](#)), ez dira aplikagarriak izango irakaslegoari dagokionez. Eta gainera, aplikatuko balira ere, ez lirateke izango benetako kontsolidazio baten berme, izan ere, ezartzen diren baldintza guztiak kontutan hartuta, behin-behinekotasunean izango luketen egiazko eragina gutxienekoa izango litzateke.

Honengatik guztiagatik, **ELarentzat ezinbestekoa da enplegu plan integral bat**, egiazko eta bermeko kontsolidazioa ahalbidetuko duena. Hala exijitu dio ELAk Hezkuntza Sailari, eta ez exijitu bakarrik, are gehiago, hori garatzeko **ELAk hausnartutako eta xehetasunez prestatutako kontsolidazio plan bat helarazi dio Hezkuntza Sailari**. Plan honi esker, hezkuntza sistemaren egonkortasuna, kalitatea eta langileon lan-baldintzak nabarmenki hobetuko lirateke. Horrexegatik hain zuzen ere, sindikatua buru-belarri lanean dagoen modura, **langileon inplikazioa eta antolakuntza erabakigarriak izango dira egoera honi aurre egiteko**.

Gida honetaz baliatzeaz gain, gai hauei buruz gehiago jakin nahi baduzu (ELAren kontsolidazio planaren nondik norakoak, martxan ditugun mobilizazio eta kanpainak,...) edo pairatzen dugun egoera honi aurre egiteko gure aldarrikapenekin bat egin nahi baduzu, klikatu ondorengo laukian edo jar zaitez gurekin harremanetan ondorengo telefonoetan:

AFILIATU

Bilbo: 944 03 77 00

Gasteiz: 945 1580 76

Donostia: 943 00 50 00

Iruñea: 948 00 79 30



ELA
EUSKAL SINDIKATUA



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Irakasleon gida

2020-2021

EAEko hezkuntza publikoa

Egoitzak

Bilbo

Barrainkua 13
Tel.: 94 403 77 00
Fax: 94 403 77 11

Gasteiz

Manuel Iradier 25
Tel.: 945 15 80 76
Fax: 945 14 10 74

Basauri

Antonio Fernández z/g
Tel.: 94 405 58 88
Fax: 94 405 58 68

Barakaldo

Gernikako Arbola 35-38
Tel.: 94 418 02 96
Fax: 94 418 93 17

Areeta

Areetako etorbidea 2
Tel.: 94 602 04 50
Fax: 94 602 04 20

Durango

Askatasun Etorbidea 5
Tel.: 94 621 76 80
Fax: 94 621 76 81

Donostia

Consulado 8, behea
Tel.: 943 00 50 00
Fax: 943 00 50 01

Azpeitia

Arana Goikoa 1-2-3,
Tel.: 943 81 34 46
Fax: 943 15 09 57

Eibar

Bidebarrieta 30, behea, 1.
Tel.: 943 82 04 42
Fax: 943 82 06 12

Tolosa

San Francisco Ib. 13
Tel.: 943 69 83 14
Fax: 943 69 82 41

Irun

Paseo Colón 27, 1.
Tel.: 943 63 84 70
Fax: 943 63 84 71

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

ZUREKIN GOAZ

Indar betez // Buru-belarri /